

BILKURAREN AKTA

ACTA DE REUNIÓN

Bilkuraren datuak

Organoa:	Euskararen Nafar Kontseilua		
Bilkura zk.:	2024/3		
Tokia:	Nafarroako Jauregiko Joaquín Elizondo aretoa		
Eguna	2024/12/18		
Hasiera ordua:	12:00	Amaiera ordua:	13:35

Datos de la reunión

Órgano:	Consejo Navarro del Euskera		
Nº de sesión:	2024/3		
Lugar:	Sala Joaquín Elizondo del Palacio de Navarra		
Día:	18/12/2024		
Hora de inicio:	12:00	Finalización:	13:35

Bertaratuak

Asistentes

Kontseiluburua	Ana Ollo Hualde	Presidenta
Kontseiluko buruordea	Javier Arakama Urtiaga	Vicepresidente
Kideak	Agurne Gaubeka Erauskin Ane Sánchez Jiménez Bakartxo Ruiz Jaso David Anaut Peña Juan Carlos Pikabea Zubiri Joxerra Olano Etxabe Josu Reparaz Leiza Inmaculada Jurío Macaya Imanol Nuñez Aldaz Mikel Arregi Pérez Naiara Ardanaz Iñarga Nerea Fillat Oiz Reyes Ilintxeta Jimenez Xabier Garcia Castell Orreaga Ibarra Murillo	Vocales
Idazkaria	Paula Kasares Corrales	Secretaria
Agertu ezina azaldu dutenak	Miguel Moreno Ariztegi Sagrario Aleman Astiz Xabier Erize Etxegarai Agurtzane Martínez Ortigosa	Excusan su asistencia

Gai zerrenda

1. Aurreko bilkura ohikoari eta ezohikoari dagozkien aktak irakurri eta, hala balegokie, ontzat eman.
2. Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren aurrekontuak 2025 urterako.
3. 97/2024 FORU DEKRETUA, azaroaren 6koa, arautzen duena nola baloratu merezimenduak Nafarroako administrazio publikoetan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko.
4. Departamentuen hizkuntza planak.
5. Euskararen Nafar Kontseiluaren barneko lan batzorde batek Nafarroako euskarazko hedabideen egoeraren gainean egindako txostenaren aurkezpena.
6. Galde-eskaerak.

Eztabaidak eta erabakiak

1. **Aurreko bilkura ohikoari eta ezohikoari dagozkien aktak irakurri eta, hala balegokie, ontzat eman.**

Ana Olo Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari andreak Euskararen Nafar Kontseiluaren aurreko bi bilkuren aktak, 2024ko otsailaren 14an izan zen bilkura ohikoari dagokiona eta 2024ko irailaren 12an izandako bilkura ezohikoari dagokiona, onartzen ote diren kontseilukideei galdegin die eta bi aktak aho batez onartu dira.

2. **Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren aurrekontuak 2025 urterako.**

Ana Olo kontseilariak Euskarabiderako aurrekontuak Nafarroako Gobernuak 2015. urteaz gozotik euskararen alde duen konpromiso iraunkorraren erakusgarri direla aipatu du, eta

Orden del día

1. Lectura y, en su caso, aprobación de las actas de la sesión ordinaria y extraordinaria anteriores.
2. Presupuesto de Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera para el año 2025.
3. DECRETO FORAL 97/2024, de 6 de noviembre, por el que se regula la valoración de méritos en el acceso y provisión de puestos de trabajo en las Administraciones públicas de Navarra.
4. Planes lingüísticos departamentales.
5. Presentación del informe sobre la situación de los medios de comunicación en euskera de Navarra, realizado por una Comisión de trabajo del Consejo Navarro del Euskera.
6. Ruegos y preguntas.

Deliberaciones y acuerdos

1. **Lectura y, en su caso, aprobación de las actas de la sesión ordinaria y extraordinaria anteriores.**

La Sra. Ana Olo, Consejera de Memoria y Convivencia, Acción Exterior y Euskera, pregunta a las y los miembros del Consejo sobre la aprobación de las actas de las dos últimas sesiones del Consejo Navarro del Euskera, las correspondientes a la reunión ordinaria celebrada el 14 de febrero de 2024 y a la reunión extraordinaria del 12 de septiembre de 2024, y ambas actas se aprueban por unanimidad.

2. **Presupuesto de Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera para el año 2025.**

La consejera Ana Olo expone que el presupuesto para Euskarabidea es una muestra del compromiso sostenido del Gobierno de Navarra en favor del euskera desde 2015 y que en el próximo

datorren urtean aurrekontu horiek bultzada handia izanen dutela. Honela azaldu du:

2025erako Euskarabidearen abiaburuko aurrekontua 8,5 milioi eurokoa zen. Kopuru hori aurtengo aurrekontu bateratua (8,1 milioi) baino zertxobait handiagoa da.

Ondoren, EH Bildurekin izandako negoziazioan, 405.000 euro gehitu ziren zenbait programa indartzeko. Horrela, aurrekontu-proiektua 8,9 milioi eurokoa izan zen.

Hortik aurrera, Geroa Bai, Contigo Zurekin eta EH Bildu taldeen zenbait zuzenketa gehitu dira fase parlamentarioan, 187.000 euroko zenbatekoarekin (talde horiek, neurri ekonomiko desberdinean izan arren, aurrekontua hobetzen lagundu zuten).

Hala, 2025ean, Euskarabidearen aurrekontu osoa % 12 haziko da, 13,4 milioira iritsi arte, langileria-gastuak barne. Erakundearen historiako aurrekonturik altuena da, Euskarabideak finantza-gaitasuna pixkanaka baina etengabe hobetu baitu 2015eko gobernu-aldaketaz geroztik. Urte hartan, Euskarabideak 2,1 milioiko aurrekontua izan zuen, hamar urte geroago izanen duena baino sei aldiz txikiagoa.

Aurrekontu honi esker, ildo giltzarriak eta helburu estrategikoak sendotzen ahalko dira; horrek isla izanen du euskararen erabilera sozialaren garapenean eta arreta berezia eskaintzen ahalko zaie Nafarroako gazteenei zuzendutako ekintzei, teknologia berrien erabilerari eta eremu sozioekonomikora bideratutako neurriei, bai eta Administrazioaren esparruan arreta elebiduna hobetzeari ere, hainbat ardatzetan.

Aurrekontu-partidek indartu egiten dute bai Euskarabidearen zuzeneko ekintza, bai eta euskararen arloko elkarte eta erakundeen sareak egiten dituen jarduerak ere. Hala, sare horretara bideratzen dira laguntza-deialdiak, bai eta euskara

año este presupuesto va a recibir un importante impulso.

El presupuesto para 2025 con el que Euskarabidea comenzó a trabajar fue de 8,5 millones de euros, cifra algo superior al presupuesto consolidado de este año, que fue de 8,1 millones.

Posteriormente, durante la negociación con EH Bildu se incorporaron 405.000 euros para el refuerzo de algunos programas. De este modo, el proyecto de presupuestos fue de 8,9 millones de euros.

A partir de ahí se han incorporado en la fase parlamentaria diversas enmiendas de los grupos de Geroa Bai, Contigo Zurekin y EH Bildu (que, aunque en distinta medida económica, colaboraron para mejorar el presupuesto) por un importe de 187.000 euros.

De este modo, en 2025, el presupuesto total de Euskarabidea crecerá un 12 %, hasta alcanzar los 13,4 millones, incorporados los gastos de personal. Se trata del presupuesto más alto de la historia de la entidad, que ha venido mejorando su capacidad financiera de forma progresiva pero constante desde el cambio de Gobierno de 2015. Aquel año Euskarabidea contó con un presupuesto de 2,1 millones, seis veces menos de lo que tendrá diez años después.

Este presupuesto permitirá una consolidación de las líneas claves y los objetivos estratégicos, con su correspondiente reflejo en relación al desarrollo del uso social del euskera y poniendo especial atención en acciones dirigidas a la población más joven de Navarra, al uso de nuevas tecnologías y también en medidas dirigidas al ámbito socioeconómico, así como la mejora de la atención bilingüe en el ámbito de la Administración en varios ejes.

Las partidas presupuestarias refuerzan tanto lo que es la acción directa de Euskarabidea como a través de actividades que realizan el tejido asociativo e institucional del euskera al que se dirigen distintas convocatorias de ayudas y también con quienes existen convenios y otros

sustatzeko helburu partekatuen inguruko hitzarmenak eta bestelako lankidetzak esparruak ere. [Nastaten](#) arabera, 3 urtetik gorako biztanleen % 26,7k daki euskara, gutxi-asko.

Euskarabidea da, orain ere, Memoria eta Bizikidetzak, Kanpo Ekintza eta Euskara Departamentuaren aurrekontu arruntetan (2. kapitulutik 7.era) pisu espezifiko handiena duen ardatza, gainera, errefortzu handiena duena da 2024arekin alderatuta, eta urte horretan ere ia % 10 goratu zen. Lehen esan dudak bezala, atzera begiratuz gero, hurrengo urterako aurreikusitakoa 2015ean aurkitu zena baino sei aldiz gehiago dela ikusiko da.

Hazkunde horri esker, hizkuntza sustatzeko politika nagusiak sendotu ahal izan dira eta, era berean, egonkortasun finantzarioa eman zaio euskara babesteko gizarte-ekosistema osoari. Ekosistema horretako eragile-sarearen finantzaketa indartu da, proiektu propioak sendotzeko, gero eta inbertsio, material eta langile gehiagorekin. Izan ere, 2. kapitulutik 6.era bitarteko inbertsioa (hau da, langile-gastua kontuan hartu gabekoa) 2024ko 8,1 milioi eurotik 2025eko 9 milioi eta hirurogei mila euro baino gehiagora igaroko da (hau da, % 11,67ko igoera izanen du).

Azalpena akiturik, Ana Ollo kontseilariak Jabi Arakama Euskarabideko zuzendari kudeatzaileari eman dio hitza aurrekontuaren diru-sail nagusiak adieraz ditzan.

Honako hauek dira Arakama jaunak xehakaturako lan-ildoak:

- Helduen euskalduntzeari dagokionez, euskaltegietakoa ikasleendako laguntzak handitu dira: 560.000 euro dira guztira. 2024an 355.000 izan dira eta, beraz, % 57 handitu dira. Aldi berean, euskaltegiei ematen zaien laguntza egonkortuko da: 2.575.000 eurokoa izanen da. Neurri horiei esker, ahalik eta gehien murriztu nahi dugu pertsona horiek euskara ikasteko egiten duten ahalegin ekonomikoa, eta matrikulen kostuaren % 75 baino gehiago estali.

marcos de colaboración en torno de objetivos compartidos de fomento de esta lengua que es conocida, en diferente grado, por un 26,7 % de la población mayor de 3 años, según [Nastat](#).

Euskarabidea es el eje que sigue teniendo el mayor peso específico en el presupuesto ordinario del Departamento (capítulos 2 al 7) de Memoria y Convivencia, Acción Exterior y Euskera y, además, es el que registra un mayor refuerzo respecto a 2024, año en el que también subió casi el 10 %. Como ha indicado antes, si se echa la vista atrás, lo previsto para el próximo año es seis veces más que lo que se encontró en 2015.

Este crecimiento ha permitido consolidar las principales políticas para el fomento de la lengua y ha aportado también estabilidad financiera a todo un ecosistema social de apoyo al euskera, cuya red de agentes ha visto reforzada su financiación para consolidar proyectos propios con inversiones, materiales y de personal, cada vez de mayor envergadura. De hecho, la inversión en los capítulos 2 al 6 (es decir, sin contar el gasto de personal) pasará de los 8,1 millones de 2024 a más de 9 millones sesenta mil euros en 2025 (es decir, un aumento del 11,67 %)

Concluida la exposición, la Consejera Ana Ollo cede la palabra a Jabi Arakama, Director gerente de Euskarabidea para que dé detalles sobre las principales partidas presupuestarias.

El Sr. Arakama detalla los principales ejes de actuación:

- En cuanto a la enseñanza de euskera a personas adultas, se da un incremento de las ayudas al alumnado de los euskaltegis con un total de 560.000 euros frente a 355.000 de 2024, un 57 % más. En paralelo se consolida el apoyo a los euskaltegis a los que se dedican 2.575.000 euros. Gracias a estas medidas, aspiramos a minimizar lo máximo posible el esfuerzo económico de estas personas por estudiar euskera, y llegar a cubrir más del 75 % del coste de las matrículas.

- Euskarabidearen programa berariazkoak:

Aurrekontuek programa propioak indartzeko aukera ematen dute. Euskarabidearen berariazko programak honakoak dira, besteak beste: Gora-gora Fest, Sarean Euskaraz, Musikariak Ikastetxeetan..., bereziki gazteei eta teknologia berriei begirakoak. Bestalde, programa berriak babesteko aukera ere izanen dugu: Mintzodromoa, Etxepare Saria...; bai eta Euskarabideko funtzionarioei prestakuntza emateko ere.

- Toki entitateak: toki entitateetarako laguntzari eusten zaio (933.000 euro).

- Gizarte erakundeak: gizarte erakundeetarako laguntzak handitu dira (2024ko 505.000 eurotik 830.000 eurora, % 64 gehiago). Horrela, elkaratek beren jarduerak garatzeko eskatzen duten guztizkoaren % 90 ingurura iritsi nahi dugu.

- Hitzarmen instituzionalak: euskalgintzari eta haren jarduera-eremuei (gazteriari, kulturari eta aisialdiari) babes handia ematen zaie. Horren erakusgarri dira Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, UEMA, Agerraldia, Bertsozaleen Elkarte, Euskarabentura, Wikilarien Elkarte, Laba, Laia, Loraldia eta abarrekin aurreikusten diren hitzarmenak.

- Hedabideak: hedabideetarako laguntzak indartu dira. Sektore horri 1.456.000 euro emanen zaizkio, 2024an baino % 18,7 gehiago (230.000 euro), eta sektorearen trantsizio digitala ere bultzatuko da, beste behin. Europako Kontseiluak, Hizkuntza Gutxituen Europako Gutuna aplikatzeari buruzko txosten guztietan, sektore horren eginkizuna nabarmendu du.

- Eremu sozioekonomikoa: eremu sozioekonomikoan euskararen erabilera indartzearen aldeko apustuak jarraitzen du (Euskara langai eta Euskaraz barra-barra, hizkuntza-planak egiteko eta ezartzeko laguntzen ohiko deialdiez eta euskara sustatzeko jarduera solteez gain).

-Programas propios de Euskarabidea:

El presupuesto permite el refuerzo de programas propios de Euskarabidea, que son, entre otros: Gora-gora Fest, Sarean Euskaraz, Musikariak Ikastetxeetan..., especialmente pensando en el público joven y las nuevas tecnologías. Así mismo, permite la asunción de nuevos programas, como Mintzodromoa, Etxepare Saria...; así como también la formación a personal funcionario en Euskarabidea.

- Entidades locales: se mantiene el apoyo a entidades locales (933.000 euros).

- Entidades sociales: se incrementan las ayudas a entidades sociales (de 505.000 en 2024 a 830.000 euros, un 64 % más). Con ello, aspiramos a cubrir porcentajes cercanos al 90 % respecto del total que las asociaciones soliciten, para desarrollar sus actividades.

- Convenios institucionales: se mantiene al alza el apoyo al movimiento social en favor del euskera, "Euskalgintza" y sus ámbitos de actuación (juventud, cultura y ocio), de lo que es muestra los convenios con Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, UEMA, Agerraldia, Bertsozaleen Elkarte, Euskarabentura, Wikilarien Elkarte, Laba, Laia, Loraldia y otros.

- Medios de comunicación: se refuerzan las ayudas a los medios de comunicación. A este sector –cuyo papel en favor de la recuperación de la lengua es resaltado por el Consejo de Europa en todos sus informes sobre la aplicación de la Carta Europea de las Lenguas Minoritarias- se dedicarán 1.456.000 euros, un 18,7% (230.000 euros) que en 2024 y también se sigue apoyando su transición digital.

- Ámbito socioeconómico: continúa la apuesta por reforzar el uso del euskera en el ámbito socioeconómico (Euskara langai y Euskaraz barra-barra, además de las convocatorias habituales de ayudas a la elaboración e implantación de planes lingüísticos o de actividades sueltas de fomento del euskera).

- Deszentralizazioa: programa propio eta deialdi guztietan kontuan hartzen da Nafarroa hiriburutik haragokoa ere badela, eta errealitate soziolinguistiko desberdinak dituela. Lurraldeari dagokionez, bultzada bat eman zaio lurraldean euskara sustatzeko eragileak kontratatzen laguntzeari (Cederna-Garalur, Teder, Nafarroako Erdialdea Garatzeko Partzuergoa), eta ekintza horretarako 126.000 euroko inbertsioa aurreikusi da.

- Harremanak beste erakunde batzuekin eta Europarekin: autonomia-erkidegoen arteko eta nazioarteko sinergieiei aurrekontu-babesa ematen zaie, hainbat saretan eta forotan parte hartuz, bai eta Europako proiektuetan ere (POCTEFAn). Proiektu horien emaitzen berri aurrerago emanen dugu, zehazten direnean.

3. 97/2024 FORU DEKRETUA, azaroaren 6koa, arautzen duena nola baloratu merezimenduak Nafarroako administrazio publikoetan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko

Ana Ollo kontseilariak azaldu duenez, Euskararen Nafar Kontseiluaren aurreko bilkuran, testua Nafarroako Kontseiluaren irizpenaren zain zegoen. Nafarroako Kontseiluak oniritzia eman zuen eta, beraz, azkenik, Nafarroako Gobernuak azaroaren 8an dekretu hori onetsi zuen. NAO n argitaratu zenetik aitzina, departamentuek bi hilabeteko epea dute, urtarrilaren 21era arte, plazak identifikatzeko eta Funtzio Publikoko Departamentuari proposamena egiteko, plantilla organikoan sar daitezen.

Jakina denez, dekretu hori Nafarroako Kontseiluak aldeko irizpena eman ondoren, Gobernuak emaniko onepenen emaitza da. Iritzi desberdinak sorrarazi ditu (eta Kontseilu honen gehiengoaren iritzia ezaguna da) baina, praktikan, urte gehiegi (bost) zeramatzan mataza bat askatzera dator, auzitegiek 103/2017 Foru Dekretuaren aurka emaniko epaiaren ondoren.

- Descentralización: en todos los programas propios y convocatorias se tiene en cuenta que existe una Navarra más allá de la capital, con sus diferentes realidades sociolingüísticas. En clave territorial, se da un impulso a la contratación de agentes de fomento de euskera en el territorio (Cederna, Teder, Zona Media) previendo una inversión de 126.000 euros para esta acción.

- Relaciones con otras instituciones y Europa: se consigna un respaldo presupuestario a las sinergias en el ámbito interautonómico e internacional participando en redes, foros y también en proyectos europeos (POCTEFA) de cuyos resultados ya informaremos más adelante, cuando se concreten.

3. DECRETO FORAL 97/2024, de 6 de noviembre, por el que se regula la valoración de méritos en el acceso y provisión de puestos de trabajo en las Administraciones públicas de Navarra

Como ha expuesto la Consejera Ana Ollo, en la pasada sesión del Consejo Navarro del Euskera, el texto estaba pendiente del dictamen del Consejo de Navarra, que lo avaló, por lo que, finalmente, el 8 de noviembre el Gobierno de Navarra aprobó este decreto. A partir de su publicación en el BON, los departamentos tienen un plazo de dos meses, hasta el 21 de enero, para identificar las plazas y pasar la propuesta al Departamento de Función Pública para incorporarlas en la plantilla orgánica.

Como saben, la aprobación por parte del Gobierno tras el dictamen favorable del Consejo de Navarra ha dado como resultado un decreto que suscita diferentes opiniones (y la de la mayoría de este Consejo es conocida) pero que en la práctica viene a desatascar un asunto que lleva demasiados años (cinco) enquistado, tras la sentencia de los tribunales contra el Decreto Foral 103/2017.

Izan ere, gogorarazi nahi dut epaiek eta Nafarroako Kontseiluaren irizpenek zenbait proposamen ekarri dituztela, segurtasun juridikoa izan dezan.

2019. urte bukaeraz geroztik, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 103/2017 Foru Dekretuari buruz emaniko epaien ondoren, egoera kritikoa da Administrazioarekiko sarbidean eta lekualdatze-lehiaketetan euskara baloratzeari dagokionez. Hori dela eta, uste dugu merezimenduen dekretuak neurri batean zuzentzen duela egungo egoera kritikoa eremu mistoan; izan ere, 2017tik ez da puntuatzen euskara eremu mistoan dauden Nafarroako Gobernuak plazetan, bertan badaude ere lanpostu gehienak, Iruñerria barne hartzen duelako. Dekretuak ahalbidetuko du euskara berriz baloratzea Administrazioak lanpostu gehienetan; gutxienez, eremu mistoan, bai eta eremu euskaldunetan ere; bertan, inoiz ez zaio utzi baloratzeari.

Haren ustez, defizit handiak ditu; esaterako, eremu ez-euskaldunetan ez dela inolako lanpostutan baloratzen euskara, eta, aldiz, atzerriko hizkuntzak baloratu daitezkeela, edo ezin dela Administrazioak lanpostu guztietan baloratu euskararen ezagutza.

Azalpena akiturik, Ana Ollo kontseilariak Jabi Arakama Euskarabideko zuzendari kudeatzaileari eman dio hitza xehetasun batzuk adieraz ditzan eta honek honela azaldu du:

- Bi hilabete daude lan egiteko kontu honen gainean. Nafarroako Gobernua gaur egun egiten ari den lana da, Euskarabidearen laguntza teknikoarekin, departamentu bakoitzean definitzea plazaz plaza euskara "merezimendutzat" hartuko den. Helburua da prozesuari segurtasun juridiko handiena ematea, Nafarroako Kontseiluaren gomendioei jarraituz.

Kontseiluaren burutzaren azalpenak amaiturik, kideen hitzetarako txanda ireki da:

Agurne Gaubeka Hizkuntz Eskubideen Behatokiko ordezkariak hitza hartu du: Euskararen Nafar

Porque quiero recordar que las distintas sentencias de la judicatura, así como los dictámenes del Consejo de Navarra han traído determinadas propuestas de modo que estén rodeadas de seguridad jurídica.

Desde finales de 2019 tras las sentencias del TSJN sobre el Decreto Foral 103/2017, la situación es crítica en lo que respecta a la valoración del euskera en el acceso a la Administración y en los concursos de traslados. Por eso entendemos que el Decreto de Méritos corrige en parte en la zona mixta, la situación crítica actual ya que desde el 2017 no se puntuaba el euskera en las plazas del Gobierno de Navarra situadas en la zona mixta, donde se encuentra la mayor parte de puestos de trabajo, al comprender Pamplona y Comarca. El Decreto va a permitir que el euskera vuelva a ser valorado en la mayor parte de los puestos de trabajo de la Administración; al menos, en la zona mixta, además de la zona vascófona, donde nunca ha dejado de hacerse.

Es cierto que se considera que tiene déficits importantes, como que en la zona no vascófona no se valore en ningún puesto el euskera y sí se puedan valorar idiomas extranjeros o que no se pueda valorar en todos los puestos de trabajo de la Administración el conocimiento de nuestra propia lengua.

Concluida la exposición, la Consejera Ana Ollo cede la palabra a Jabi Arakama, Director gerente de Euskarabidea para que dé detalles sobre este punto y éste informa de lo siguiente:

- Hay dos meses para trabajar. El trabajo que actualmente está realizando el Gobierno, cada departamento, es definir, plaza a plaza, la posible valoración como "mérito" (con el acompañamiento técnico de Euskarabidea y con el objetivo de dotar al proceso de la mayor seguridad jurídica según las recomendaciones del Consejo de Navarra).

Una vez concluidas las explicaciones de la Presidencia del Consejo, se abre un turno para la intervención de los miembros:

Agurne Gaubeka, representante de Behatokia - Observatorio de Derechos Lingüísticos comenta

Kontseiluaren beste saioen batean aipatu duenez, garrantzitsua da gogor ekartzea azken 5 urteotan zenbat deialdi atera diren euskara meritutako aintzat hartu gabe. Haren kalkuluaren arabera, ukitutako lanpostuak 2.000 bat izan dira. Areago da kezkagarria ordea, behin Foru Dekretua argitaratuz gero, abenduaren 2an, 248 erizainendako deialdi bat atera dela eta Foru Dekretuak ezarritakoa ez dela aplikatu. Segurtasun juridikoaz, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiari galdegindakoaren erantzunez, esan zaigu plazen zehaztapena negoziaketa kolektiborik pasako dutela eta betiere, helegitatarako aukera izanen dela. Nire kezka hori da, ez ote den hasiko auzitegiratze dinamika bat.

Ana Ollo kontseilariak erantzun dio: arauaren atzeraeraginik ez dago eta edozein araurekin bezala, helegitatarako aukera irekia da, baina gure ardura da ahal den segurtasun juridikorik handiena bermatzea.

4. Departamentuen hizkuntza planak

Ana Ollo kontseilariak departamentuen hizkuntza planen egoera azaldu du: joan den astean, abenduaren 13an, hizkuntza-planak aurkeztu ziren sindikatuen mahaian. Une honetan, sindikatuek urtarrilaren 7 arteko epea dute alegazioak aurkezteko. Urtarrilaren 15ean, berriz ere sindikatuen mahaia bilduko da eta, ezusterik ezean, proposamena onetsiko du.

Aurrerapauso garrantzitsua da, eta Nafarroako Gobernuak Nafarroako herritarrei eskaintzen dien euskarazko arreta hobetzea ahalbidetuko du, bereziki herritarren eskaera handiena dagoen lekuetan.

Proposamen hori Uxue Barkosen Gobernuak bultzatutako arauditik dator, eta auzitegiek bermea eman zioten 2017an onetsitako euskararen erabilerari buruzko Foru Dekretuan.

que, como ya ha expuesto en alguna otra sesión del Consejo Navarro del Euskera, es importante recordar la cantidad de convocatorias que se han publicado en estos últimos cinco años en las que el euskera no se ha tenido en cuenta como mérito. Nuestro cálculo nos dice que se han visto afectadas unas 2.000 plazas. Es más preocupante el saber que una vez que ya estaba publicado el Decreto Foral, el 2 de diciembre, se publicó una convocatoria de 248 plazas de enfermería, y no se aplicó lo establecido en el Decreto. Sobre la seguridad jurídica, en la respuesta que me dio el Director General de Función Pública a las cuestiones que le dirigí, se nos dijo que la definición de las plazas se pasaría por la mesa de negociación colectiva y habría posibilidad de recurso. Es un aspecto preocupante el comienzo de una dinámica de recursos.

La Consejera Ana Ollo responde que la norma no tiene retroactividad y, como en todo caso, esta norma también tiene la posibilidad de recurso, siendo su interés la garantía de la seguridad jurídica.

4. Planes lingüísticos departamentales

La Consejera Ana Ollo expone la situación de los planes lingüísticos departamentales: la pasada semana, el 13 de diciembre, fueron presentados los planes lingüísticos en la mesa sindical. En estos momentos los sindicatos tienen de plazo hasta el 7 de enero para presentar alegaciones y el 15 de enero habrá una mesa sindical donde, previsiblemente, se aprobará la propuesta.

Es un paso adelante importante, que va a permitir mejorar la atención en euskera que el Gobierno de Navarra ofrece a la ciudadanía navarra, especialmente allí donde hay mayor demanda de la ciudadanía.

Es una propuesta que deviene de la normativa impulsada por el Gobierno de Uxue Barkos y que fue avalada por los Tribunales en el Decreto Foral de uso del euskera aprobado en 2017.

Joan den ostiralean sindikatuei helarazi zitzairen hizkuntza-eskakizun elebidunen zerrenda departamentuetako hizkuntza planen baitan kokatu behar da. Plan horien xedea da Foru Administrazioaren zerbitzu publikoa egokitzea eta hobetzea gero eta elebidunagoa den Nafarroako biztanleriari zerbitzua emateko.

Izan ere, Nastat erakundearen azken datuen arabera, ia 100.000 nafar dira euskaldunak (biztanleriaren % 15,1) eta beste 75.000 (% 11,6) dira euskaraz zerbait dakitenak.

Horren aurrean, 2015ean hizkuntza-politiken zuzendaritza geure gain hartu genuenean, Gobernuak plazen % 1 baino ez zen ele bikoak, irakasleak kenduta.

Ezinbestekoa zen administrazioaren zerbitzu publikoa errealitate soziolinguistikora egokitzeko urratsak ematea. Gaur egun, plazen % 3 baino zertxobait gehiago dira ele bikoak. Gaur aurkeztutako proposamenarekin kopurua % 4,75era iritsiko lirateke, oraindik ere euskaldunen ehunekotik urrun, baina aurrerapen esanguratsua da.

Termino absolutuetan, 246 plaza gehiagori esleituko zaie euskara eskakizuna; 511 plazak zuten orain arte. Departamentu guztiek, lehenbizikoz, ele biko lanpostuak izanen dituzte herritarrei arreta emateko. Beren autonomiatik eta ezagutzatik abiatuta, departamentuek proposatu dute zenbat eta zein lanpostuk izan beharko luketen ele biko hizkuntza-eskakizuna, jendaurreko arretako lanpostuei lehentasuna emanaz, eta lan-mota edo zer lekutan egiten den lan aintzat hartuz.

Oso prozesu bermatzailea da, auzitegiek babestutako indarreko legeriaren esparruan egiten ari dena, indarrean dagoen akordio programatikoa jasoa eta Europako Kontseiluaren gomendioei jarraitzen diena. Eta enplegatu publikoek eskuratutako lan-eskubideak erabat errespetatuz egina.

La lista de perfiles bilingües que se trasladó a los sindicatos el pasado viernes se inscribe dentro de los planes lingüísticos departamentales que buscan adaptar y mejorar la calidad del servicio público que la Administración foral presta a una ciudadanía navarra cada vez más bilingüe.

De hecho, según los últimos datos de Nastat, casi 100.000 navarros y navarras dominan el euskera (un 15,1 % de la población) y otros 75.000 (11,6%) tienen algún conocimiento de la lengua.

Frente a ello, cuando en el 2015 asumimos la dirección de las políticas lingüísticas, apenas un 1 % de las plazas del Gobierno, quitando el personal docente, eran bilingües.

Era necesario dar pasos que adecuen el servicio público de la administración a la realidad sociolingüística. En la actualidad, algo más del 3 % de las plazas son bilingües. Con la propuesta hoy presentada, se alcanzaría el 4,75 %, todavía lejos del porcentaje de población vascohablante, pero que supone un avance significativo.

En términos absolutos, se trata de asignar perfiles a 246 plazas más de las 511 actuales. Todos los departamentos tendrán, por primera vez, plazas bilingües para atender a la población. Han sido los departamentos, desde su autonomía y conocimiento, quienes han propuesto cuántas y cuáles plazas deberían contar con un perfil bilingüe priorizando la atención al público, el tipo de trabajo o el lugar desde donde se desarrolla el trabajo.

Es un proceso muy garantista que se está haciendo en el marco de la legalidad vigente avalada por los tribunales, recogida en el vigente acuerdo programático y que sigue, también, las recomendaciones del Consejo de Europa. Y con todo el respeto a los derechos laborales adquiridos de los empleados públicos.

Azalpena akiturik, Ana Ollo kontseilariak Jabi Arakama Euskarabideko zuzendari kudeatzaileari eman dio hitza xehetasun batzuk adieraz ditzan eta honek honela azaldu du:

Euskarabideak laguntza teknikoa eman du gai honetan. Gaia orain Funtzio Publikoaren eremuan dago, eta hark aurkeztu zuen Mahai Orokorrean.

Proposatutako plazek beren eginkizunak eta zerbitzuak zorrotz identifikaturik dituzte, eta bereziki nabarmendu dira jendaurrekoak direnak.

Plaza berrien heren bat baino gehiago (84) eremu euskaldunerako dira, baina eremu mistoko arreta ere indartu da (162 plaza berri, guztizkoaren bi heren).

Gure ustez, aitzina egiten da modu positiboan, etengabe eta tinko. Gizarte eta lurralde kohesioa beti gogoan dugula, euskara sustatzen jarraitzen dugu, Nafarroako herritarrei arreta euskaraz ematea bermatzeko neurriak bultzatuz, ikasteko eta erabiltzeko aukerak emanez, borondatezotasunez, eta Nafarroako herritar guztien eskubide guztiak errespetatuz.

Prozesu mailakatua ere bada, baina merezimenduen dekretuaren garapenarekin batera, ikus daiteke Foru Administrazioak legegintzaldi honi nola begiratzen dion, eguneratzeari edo konfiguratzeari dagokionez (Nafarroako Gobernuak plantilaz eta departamentuez ari gara, eta ez udalez edo Estatuko administrazioaz, horiek ere herritarrek artatzen badituzte ere, beren erregulazioa eta plangintza baitute).

Arakama jaunak azalpena amaiturik, kontseilukideendako hitz-hartze txanda ireki da:

Bakartxo Ruiz andreak hitza hartu du errateko, haren iritziz, hizkuntza planei dagokienez legegintzaldi proposamena hutsetik abiatzen dela eta ez direla inoiz benetan burutzen. Bestela, proposamena ez dela integrala, ez dela

Concluida la exposición, la Consejera Ana Ollo cede la palabra a Jabi Arakama, Director gerente de Euskarabidea para que dé detalles sobre este punto y éste informa de los siguiente:

Euskarabidea ha acompañado técnicamente el proceso, que ahora está en el ámbito de Función Pública, que es quien lo presentó en la Mesa General.

Las plazas propuestas responden a una identificación rigurosa de sus funciones y servicios, haciéndose hincapié en aquellas que realizan su trabajo de cara al público.

Más de un tercio de las nuevas plazas (84) van destinadas a la zona vascófona pero también se refuerza la atención en la zona mixta (162 nuevas plazas, dos tercios del total).

Entendemos que se avanza en positivo, con paso constante y firme. Con la cohesión social y territorial siempre presente, seguimos fomentando el euskera, impulsando medidas que garanticen la atención a la ciudadanía navarra en euskera por parte de su administración, dando oportunidades de aprendizaje y uso desde la voluntariedad y el respeto a todos los derechos de toda la población navarra.

Es un proceso también gradual pero que junto al desarrollo del decreto de méritos puede concluir en la actualización-configuración de cómo aborda la Administración foral (estamos hablando de plantillas y departamentos del gobierno de navarra, no de ayuntamientos o administración del Estado que también atienden a ciudadanía y tienen su regulación y planificación) de cara a esta legislación.

Concluida la intervención del Sr. Arakama, se da la palabra a los miembros del Consejo:

La Sra. Bakartxo Ruiz toma la palabra para señalar que, en su opinión, la propuesta de legislación a legislación en relación con los planes lingüísticos parte de cero y nunca se llevan a cabo de verdad. Si no, que la propuesta no es integral, que no es hecha por el Gobierno con una visión

Gobernuak ikuspegi integral batez egina. Departamentu batzuetan oraintsu arte ele biko lanposturik ez da izan, ikuspegi orekatua eta integrala falta zen eta espero duela orain hartzen diren erabakiak norabide horretan joatea. Kezka sortzen dio lanpostuak definitzean jendaurreko lanpostua izateari begiratzeak, merituen foru dekretuan bezala. Jendaurreko lanpostutzat ezin dira soilik leihatilan edo telefono hartzeko dauden horiek, Agurne Gaubeka andreak ohartarazi duenez. Departamentu askotan lana gaztelania hutsez egiten segitzen den bitartean, Euskarabiderako lan karga izango da, hori dena itzultzeko. Alde horretatik, anbizio handiagoa izan beharko luke Gobernuak.

Arakama jaunak erantzunean erran du Ruiz andrearen iritzia, planek koherentzia eta osotasun falta dutela, errespetatzen duela, baina Gobernuaren ikuspegi integrala defendatu du, Gobernuaren ikuspegi hori gabe oraindik izanen baitziren ele biko lanposturik gabeko departamenturen bat. Orobat, prozesuan Euskarabideak egin duen koordinazio lana aipatu du, ele biko lanpostuen definizioa departamentu bakoitzaren ardura izan dela, ez Euskarabidearena. Prozesu dinamikoa da, bizia, eta planak garatu ahala departamentuen egoera aldatuko da.

Anaut jauna datu hutsei begira ateratzen den balorazioaz aritu da. Zenbaki handiagoak baldin badira, balorazio ona egiten da; nahiz eta datuak oso txikiak izan eta euskararen errealitate soziolinguistikoak eta haren normalizazioak eskatzen dituzten zenbakietatik oso urrun egon.

Ana Ollo kontseilari andreak Euskarabidearen euskara prestakuntzaren eskaintza nabarmendu du, langileei euskaraz ikasteko aukera emateko.

(Ruiz andreak bileratik alde egin du)

Agurne Gaubeka andreak Departamentuetako ele biko plazen kopurua aski den egun dauden beharrak eta legea bera betetzeko galdetzen du. Ele biko plazen kopurua handitu delako pozik egon beharko genukeela uste du, —Dabid Anaut

integral. En algunos departamentos hasta hace poco no ha habido puestos bilingües, faltaba un enfoque equilibrado e integral y espera que las decisiones que se tomen ahora vayan en esa dirección. Le preocupa que al definir los puestos de trabajo se mire que sea un puesto de trabajo público, como en el decreto foral de méritos. «Como puesto de trabajo público no pueden ser sólo aquellos que están en ventanilla o para atender el teléfono», advierte Agurne Gaubeka. Mientras que en muchos departamentos el trabajo se sigue haciendo exclusivamente en castellano, habrá carga de trabajo para Euskarabidea, para traducir todo eso. En este sentido, el Gobierno debería ser más ambicioso.

El Sr. Arakama responde que respeta la opinión de la Sra. Ruiz, relativa a que los planes carecen de coherencia e integridad; pero defiende la visión integral del Gobierno, ya que sin esa visión aún habría algún departamento sin puestos bilingües. Asimismo, comenta la labor de coordinación que ha realizado Euskarabidea en el proceso, añadiendo que la definición de los puestos bilingües ha sido responsabilidad de cada departamento, no de Euskarabidea. Es un proceso dinámico, vivo; por lo que, a medida que se vayan desarrollando los planes, cambiará la situación de los departamentos.

El Sr. Anaut se refiere a la valoración que se hace de los datos. Si los números aumentan, la valoración es positiva; aunque los datos sean muy bajos y disten mucho de los números que exige la realidad sociolingüística del euskera y su normalización.

La consejera Ana Ollo destaca la oferta de formación en euskera de Euskarabidea para dar la oportunidad a los trabajadores de aprender en euskera.

(La Sra. Ruiz abandona la reunión)

La Sra. Agurne Gaubeka pregunta si el número de plazas bilingües en los departamentos es suficiente para cubrir las necesidades actuales y la propia ley. Opina que, aunque debemos estar satisfechos de que se haya incrementado el

jaunak aipatu bezala—, baina ez gara ari errealitateak eskatzen dituen parametroetan. Lanpostuen definizioa herritarren eskaerarik handieneko lanpostuetatik hasi dela azaldu da, baina ele biko lanpostuen definitzeko eskaeraren irizpidea aipatzeak kezka ematen diola. Herritarren hizkuntza eskubideez ari gara eta hizkuntza eskubideak ez dira eskaera-eskaintza parametroetan planteatu behar. Bada garaia eremu euskalduneko plaza guztietan edo ia guztietan epe jakin batean euskara ezagutza nahitaezkoa izateko. Bestela, ezin ahaztu eremu euskalduneko herritarren zerbitzu anitz eremu mistotik ematen direla eta hor, zerbitzu zentraletan, gehienetan, herritarrek ezin dute euskara aukeratu langileek ez baitakite. Beraz, haren iritziz, ez dugu baikorrak izan behar, orain onartu diren hauek, merituen dekretuak eta hizkuntza planek, ez soilik oraingo egoerari, etorkizuneko beharrari ere erantzun behar diotela eta, alde horretatik, lan handia egin beharra dago.

Arakama jaunak erantzun du ele biko lanpostuen kopurua zehazteko departamentu bakoitzak gaur egun dagoen araudia, bere errealitatea eta beharrak aintzat hartu dituela. Planak noiz beteko diren galderari, ahal den lasterren, erantzun du, betiere, herritarren hizkuntza-eskubideak eta langileen lan-eskubideak uztarturik.

5. Euskararen Nafar Kontseiluaren barneko lan batzorde batek Nafarroako euskarazko hedabideen egoeraren gainean egindako txostenaren aurkezpena.

Jabi Arakama jaunak azaldu du Euskararen Nafar Kontseiluaren baitan sortutako lan-batzorde batek euskarazko hedabideen egoerari, beharrei eta erronkei buruzko txosten bat egin duela 2024an. Euskarabidea batzorde horri prozesuan lagundu dio (adibidez, enpresa espezializatu bat kontratatu du, txostena gidatu, egituratu eta idazten lagundu duena). Edonola ere, uste dugu egokiena dela lan-

número de plazas bilingües, — como mencionaba el Sr. Dabid Anaut — no estamos en los parámetros que exige la realidad. Se explica que la definición de puestos de trabajo empieza por los puestos más demandados por la ciudadanía, pero le preocupa que se mencione el criterio de la demanda de definición de puestos bilingüe. Hablamos de derechos lingüísticos de la ciudadanía y los derechos lingüísticos no deben plantearse en parámetros de demanda. Ya es hora de que en todas o en casi todas las plazas de la zona vascófona el conocimiento de euskera sea obligatorio en un plazo determinado. Por otra parte, no se puede olvidar que los múltiples servicios de los ciudadanos de la zona vascófona se prestan desde la zona mixta y ahí, en los servicios centrales, la mayoría de las veces, los ciudadanos no pueden elegir el euskera porque los trabajadores no lo saben. Por lo tanto, opina que no hay que ser optimistas, que lo que ahora se ha aprobado, el decreto de méritos y los planes lingüísticos, no sólo tienen que responder a la situación actual, sino también a la necesidad de futuro y, en este sentido, hay que trabajar mucho.

El Sr. Arakama responde que para determinar el número de plazas bilingües, cada departamento ha tenido en cuenta la legislación vigente, su realidad y necesidades. A la cuestión de que cuándo se van a cumplir los planes, informa que a la mayor brevedad posible, conjugando los derechos lingüísticos de la ciudadanía y los derechos laborales de los y las trabajadoras.

5. Presentación del informe sobre la situación de los medios de comunicación en euskera de Navarra, realizado por una Comisión de trabajo del Consejo Navarro del Euskera.

El Sr. Arakama expone que una comisión de trabajo creada en el seno de este Consejo Navarro del Euskera ha trabajado, a lo largo de 2024, en la elaboración de un informe sobre la situación, necesidades y retos de los medios de comunicación en euskera. Euskarabidea ha acompañado a esta comisión de trabajo en el proceso (por ejemplo, realizando la contratación

batzordearen beraren ordezkaritza batek Euskararen Nafar Kontseiluko gainerako kideei prozesuaren eta ondorioen berri ematea. Txostenaren kopia bat banatu zaie kideei eta Arakama jaunak dokumentu digitala ere helaraziko zaiela aipatu du, Kontseilu honek ondoko bilera batean erabaki dezan nola erabili nahi duen eta, beraz, zer urrats eman nahi dituen.

Txostenaren edukia azaltzeko Juan Kruz Lakasta jauna Euskararen Nafar Kontseiluaren baitan sortutako euskarazko hedabideen lan-batzordeko kidea batu da bilkurara. Bere hitzen amaieran, Lan-batzorde horrek egin duen gogoetaren ondoriozko eskakizun batzuk, Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari helaraztekoak aletu ditu.

Azalpena akiturik, Agurne Gaubeka andreak hitza hartu du, lehenik, egindako lana eskertzeko, eta bide batez, honako hau galdetzeko: ea txostenak agerian utzi ote duen euskarazko komunikabideek zer zailtasun duten Nafarroan lan egiteko, Behatokitako euskal kazetarien kexa dezente iristen baitira erakunde publikoetako ordezkariak informazioa euskaraz eman ez izanaz, kazetariak euskaraz informazioa lortu ezinaz...

Lakasta jaunak erantzun du, oso ekarpen interesgarria bada ere, txostenak ez duela halakorik jaso.

Jabi Arakama jaunak lan-batzordeari egindako lana eskertu dio eta hurren bilkuran txostena horren lanketa zehaztuko dela jakinarazi du.

6. Galde-eskaerak.

Aztertu beharreko beste gairik ezean, Ana Olo kontseilariak, nork bere jarrerarekin, baina

de una empresa especializada que ha guiado, estructurado y colaborado a redactar el informe). De todas formas, lo más adecuado es que sea una representación de la propia comisión de trabajo quien informe al resto de los miembros del Consejo Navarro del Euskera sobre el proceso y las conclusiones. Una copia del informe que se va a presentar ha sido repartida a los miembros presentes y, posteriormente, se hará llegar a todos el documento digital para que, en una sesión posterior, este Consejo decida qué uso quiere hacer del mismo y, por tanto, qué pasos quiere dar al respecto.

Para la exposición del informe, se suma a la reunión el Sr. Juan Kruz Lakasta, miembro de la Comisión de trabajo de medios de comunicación en euskera creada en el seno de este Consejo Navarro del Euskera. concluye su intervención con unas peticiones al Parlamento de Navarra y Gobierno de Navarra, surgidas de la reflexión que ha llevado a cabo la Comisión de trabajo.

Concluida la exposición, la Sra. Agurne Gaubeka toma la palabra, en primer lugar, para agradecer el trabajo realizado y, de paso, para preguntar si el informe ha puesto de manifiesto las dificultades de los medios de comunicación en euskera para trabajar en Navarra, ya que para el Observatorio llegan bastantes quejas de los periodistas vascos sobre la falta de información en euskera por parte de los representantes de las instituciones públicas, sobre la imposibilidad de los periodistas de obtener información en euskera...

El Sr. Lakasta responde que, aunque es una aportación muy interesante, el informe no la ha recogido.

El Sr. Arakama agradece la labor de la Comisión, dejando para la próxima sesión del Consejo la concreción del trabajo a realizar a partir del informe.

6. Ruegos y preguntas.

Sin más temas que tratar, la Sra. Consejera, Ana Olo recalca que lo importante es que, aunque

Kontseiluak euskararen alde lan egitea dela garrantzitsua nabarmenduz eta kontseilukideei parte-hartzea eskertuz, bilkura bukatutzat eman du 13:35 direlarik.

cada miembro desde su posición, el Consejo trabaje por el euskera, y siendo las 13:35 horas, da la reunión por concluida.

Iruñean, sinadura digitalaren egunean / En Pamplona, a día de la firma digital.

Kontseiluko idazkaria / La secretaria del Consejo

Paula Kasares